



Durangoko XXVI Liburu eta Disko Azoka

Azokako giroa hasi da irakiten

Jende asko inguratu zen atzo eta nobedadeak izan ziren nagusi salmentetan

Durangon Euskal Liburu eta Disken Azokako benetako giroa atzo hasi zela esan daiteke. Azokaren aretoaren barruan ez ezik, atarian ere ikus zitezkeen zenbait stand, herriko kaleak girotuz. Jende aldetik ere, askoz giro epelagoa izan zen atzokoa.

IDURRE ESKISABEL / DURANGO

Herenegun ez bezala, atzo nabaria izan zen Durangon jaieguna zela. Aurreko egunean herrian bertan ez zen gehiegi nabaritzen azokako giroa, baina atzo ez zen horrelakorik gertatu. Goizean goizetik, eta azpimarragarria da ordutegi aldetik gaitu zirela aurreko egunean izandako arazoak, Euskal Herriko hainbat puntutatik lagun ugari hurbildu zen Euskal Liburu eta Disken Azokara.

Egia esan, eguraldiak ere lagun-zen zuen hortarako, nahiz eta goiz partetik lainoa nahiko itxia izan zenbait tokitan. Hala ere, eguzkiak irabazi zuen jokoa atzo ere, zerua beharhala oskarbituz.

Benetako azoka giroa beraz atzokoa. Adin guztietako jendea ikus zitezkeen gainera, haurrak lehenengo egunean baino gutxiago baziren ere. Ekitaldi eta aurkezpen desberdinek ere esanahi azpimarragarria izan zuten atzoko egunez. Beharbada aipagarriena, euskal prentsaren inguruan Jon Sarasua moderatzaile zela egindako mahaingurua izan zen. Arloan jakitun diren hiru lagunak hartu zuten parte. Zehazki, Joxerra Garzia, Iñaki Zabaleta eta Nerea Azurmendik.

Aipatzekoa da Josu Landa eta Jesus Mari Zalakain ere solaskide izatekoak zirela, baina arrazoiz desberdinak zirela medio, ezin izan zuten emandako hitza bete. Baina hutsu-



NAPARHEID euskal komikiko kideek beren standtxoa ere jarri zuten Uribarri kaleko azoka aurrean. Nahiz eta diru faltagatik ezin eduki beren lekua azoka barruan, asmatu zuten jendearen atentzioa irudimenez erakartzen. Nafarroan egiten den euskal komiki honek, badu arrakastarik barre-irudiaren mundua gustoko duen jendearen artean.

neak hutsune, entzuleak ere asko izan ziren, eta kontutan izateko hamaika iritzi entzun ahal izan ziren.

Aurkezpenetan lehenengoa berriz Elkar diskoetxeak egindakoa izan zen, argitara eman dituzten azken

«Herenegun herrian bertan ez zen gehiegi nabaritzen azokako giroa, baina atzo ez zen horrelakorik gertatu».

diskoen xehetasunak argitu naiz. Zazpi izan ziren guztitara aurkeztutako diskoak.

Honen atzetik, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustukoaren txanda izan zen, plazaratu berri dituzten hainbat libururen nondik norakoak emateko. Arratsalde partean, Troka argitaletxeak, Euskal Herriko Euskarazek, eta Ohiuka diskoetxeak, Txalaparta argitaletxeak, Bilboko Arte Ederretako Museoak izan zuten euren aukera.

SALMENTAK ERE UGARIAGOAK Jende kopuruan, egitarauan eta antolakuntzan ez

ezik, salmentetan nabaritu zen atzo azokaren indartzea. Herenegun haur literatura izan bazen ere nagusi, atzo gazte eta helduentzakoak gailendu zen. Erein argitaletxeak arduradunak aipatu zigunez, beste urteetan bezala ari dira saltzen aurtengoan, eta Anjel Lertxundik idatzitako bi liburu berriak izanik gehien saldu direnak.

Susak jarritako stand-aren inguruan ere jende mordoxka ikus zitezkeen, Edorta Jimenezen 'Speed gauak', eta Xabier Montoiaren 'Non dago Stalin?' izanik salduenak. IZ diskoetxeak ere, asko saltzen ari zirela aipatu ziguten, batez ere Txirri, Mirri eta Txiribitonen asken diskoa, Egan eta Joselu Anaiak bezalako plaza taldeenak, eta Jose Inazio Ansorenak moldatutako 'Ansorentarren danbolina'.

BERTATIK BERTARA

Erletxeko istripu larriaren itzala azokaraino ere heldu zen

I. ESKISABEL / DURANGO

Galdakao eta Zornotza artean atzo gertatutako istripu tamalgarriak izan zuen eraginik Durangoko Azokan. Bilbotik azokara abiatutako hainbat lagun familiartekoez, etengabe deitzen zuten azokako informazio stand-era, holako edo halako bertan ote zen galdetuz. Zoritzarrak ere, izan zuen beraz lekuri euskal liburu eta disko azokan.

Baina kontu hauek alde batera utzita, jende ezagun ugari izan zen atzokoa aurreko egunean bezala, liburu bat ikusi, disko bat erosi, edo egunpasa Durangon. Hala ere, aurreko egunetako batzuk ez ziren mugatu ikusmiran ibiltzera edo erosketak egitera. Esaterako **Natxo de Felipe** Oskorri talde ezaguneko kantaria, eguerdi partean euskal prentsaren inguruan eratutako mahainguruan izan zen belarriak adi-adi.

EGUNKARIAren lehenengo urteurrena atzo betetzen zen arren, **Pello Zubiria** zuzendariak ere, ez zuen hutsegin mahainguru horretara.

Prensa alde batera utzita, antzerki munduko zenbait lagun ere ikusi ahal izan ziren azokan. Agian bera ere rap kantatzen hasia delako, **Jose Ramon Soroiz** aktoreak, Esan Ozenkiren stand-ari arreta berezia eskaini zion. **Aizpea Goenaga**, besteak beste ETBn 'Hau da hau' saioko aktorea ere ikusi ahal izan genuen bertan.

EUSKAL LIBURUAK

KIRIKINO

Colon Larreategi, 11
424.11.74
48.001 BILBO

HIZKUNTZAK

LAUAXETA

Rodriguez Arias, 45
441.27.77
48.010 BILBO

PAPERDENDA

ESKOLA JOKOAK ETA JOSTAILUAK

LIZARDI

Lehendakari Agirre, 20
447.29.55
48.014 BILBO

LABAYRU




IKASTEGIA

Jesu Christoren Lau Evangelioak Batera Alcarturik, (P. Antonio Añibarrarena)/ Argilunak Begietan, (Lourdes Unzueta Zamalloarena)/ Zazpi Barri, (J. A. Oar - Artetarena)/ Eusko - Umeak Atzerrian (Xabier Goitiarena)
Gramatika Deskriptiborako Materialak, (Jesus M. Agirrerena)/ Euskal Sintaxiaz/ Euskal Alegintza/ Ermitas de Bizkaia (3 ale), (Gurutzi Arregirrena)/ Fogueraciones de Bizkaia del s.XVIII, (Jaime Kerexetarena)/ Los Vascos de la Magia al Animismo, (Anastasio Arrindarena)

Egunokaz Durangoko Liburu eta Disko Azokan salgai

Egunero
Durangoko Azokan



BIZKAIA
irratiak

EUSKERAZ BIZKAIKO IRRATI BAKARRA

FM 102.6

LEKEITION 98.1
ONDARROAN 92.5
MARKINAN 96.7
ARAMAION 104.9